

## MATRIKULA OFIZIALARI BURUZKO INFORMAZIOA 2011- 2012 ikasturtea

### 1. SARTZEKO BALDINTZAK

- **Adina:** beharrezkoa da 2011ean 16 urte beteta edukitzea. Halaber, eskolan sartu ahal izango dira 2011ean hamalau eta hamabost urte bete dituztenak, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den beste hizkuntzaren bat ikasi nahi badute.
- **Hizkuntza:** espainiar nazionalitatea duten pertsonak ezingo dute ikasi Espainiera Atzerriko Hizkuntza. Beste nazionalitate batzuetako pertsonak ezingo dute matrikulatu beren ama-hizkuntza ikasteko.

### 2. MATRIKULA OFIZIALA FORMALIZATZEKO PROZEDURA ETA JARRAIBIDEAK

#### 2010-2011 IKASTURTEKO IKASLE OFIZIALAK eta AURTEN ONARTZEKOAK DIREN IKASLEAK

Ekainaren 30etik aurrera, **osteguna, uztailaren 14a bitartean.**

Uztailaren 27an Eskolan eta web orrietan argitaratuko dira **onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko** zerrendak.

**ORDAINKETA:** ordainketa **uztailaren 28tik irailaren 15ra** bitartean egingo da, [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) webgunean sartu eta han adierazitako urratsei jarraituz.

**Ordaintzeko modua:** nahitaez administrazioaren ordainketa-pasabidearen bidez egin beharko da, [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) webgunean sartuz.

Honela egin ahal izango da:

- *on-line:* ordainketa norberaren ordenagailutik egingo da, kreditu-txartelaren bidez edo banka elektronikoko sistemaren bidez.
- *off-line:* norberaren ordenagailutik ordaintzeko errekerimendua inprimatu behar da, eta dokumentu horrekin finantza-entitatera edo kutxazain automatikora jo ordainketa egiteko.

**Irailaren 23an** argitaratuko dira ordainketa egin ez izateagatik baztertutakoen zerrendak.

### 3.- MATRIKULA-MOTAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

<b>Matrikula-mota</b>	<b>Prezio publikoak, ikasturte eta hizkuntzako</b>
Arrunta	68,68 €
Kategoria orokorreko familia ugaria	34,34 €
Kategoria bereziko familia ugaria	Salbuespen osoa

Kuotan erabateko salbuespena izango dute, halaber, azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuak, Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko programa arautzen duenak, 25. artikuluan adierazitako kasuetan dauden ikasleek.

### 4. KOKATZEKO PROZEDURA: AURTEN ONARTZEKOAK DIREN IKASLEENTZAKO MAILA-PROBAK

Aurreko maila gaindituta izan gabe maila jakin batean matrikulatu nahi duten pertsona guztiek egin beharko dituzte maila-probak. Probak autoebaluazioan oinarritutakoak dira: ikasleek eskolan jaso beharko dituzte edo webgunetik jaitsi beharko dituzte probak dagozkien erantzunekin, eta beren buruak kokatzen lagunduko dieten jarraibideak izan beharko dituzte kontuan. Beheko mailak gaindituta izan gabe maila jakin batean matrikulatzeko prozedura hau erabiltzen dutenek maila horretako tasak bakarrik ordainduko dituzte eta ikasturtearen amaieran horien inguruko ebaluazioa bakarrik egingo zaie. Hori gainditzen ez badute, ez zaie egingo beheko mailetako ebaluaziorik. Autoebaluazioa behar bezala ez delako egin ikaslea gaizki kokatuz gero, ikasleak mailaz igotzeko edo jaisteko eskatu ahal izango du. Hori egiteko aukera emango zaio eskatutako mailan plaza hutsen bat bada. Mailaz igotzeko nahitaezkoa izango da irakasleak hori berariaz jakinaraztea idatziz.

### 5. HURRENKERA IRIZPIDEAK

Hizkuntza bakoitzean aurreko ikasturtetan erabilitako letraren zozketaren orde:

Eskaera bakoitzari ordena-zenbaki bakarra emango zaio, zorizkoa. Zenbaki horrek erabakiko du baremazio-prozesuan daudenen artean zein ikaslek izango duen plaza, baldin eta berdinketa gertatzen bada.